

## Publikoan emandako urratsik ausartena

**EZKER ABERTZALEAK** badu alderdi berria eta orain ikusi beharko da Espainiako agintaritzaren maila desberdinek nola erantzuten duten. Bilbon egindako agerpenak ez du inor hotz utzi eta ezker abertzalearen azken bi urteetako bidean hartutako erabaki sendo eta ausartenetakoa da. Gero eta gehiago ari da bistaritzen ezker abertzalearen prozesu honek ez duela atzera bueltarik.

Hala ere, posibleena da Espainiako Gobernuak ez onartzea, Barne Ministerioak hogei egun ditu horretarako, baina denak adierazten du ez duela onartuko eta, fiskaltzaren bidez, Auzitegi Gorenaren esku utziko duela. Alderdi berriaren estatutuei soilik jaramon eginda, inongo zalantza barik legezatu beharko luke, hauek gaur egun Espainian dauden dozenaka alderdi-diren gisakoak direlako eta indarkeriari dagokionez, horietako gehienak baino zehatzagoak. Azkenean, ezker abertzaleak berriz ere argi adierazi du helburu politikoak lortzeko bortxaren erabilera baztertzeko duela, ETAREN bortxa espreski eta argi aipatuz.

Espainiako Auzitegi Gorenaren ibilbidea ikusita, seguruena da honek alderdi berria ez legezatzeko. Orduan, helegitea jarri ondoren, azken aukera Auzitegi Konstituzionala litzateke. Eta hemen zalantza gehiago dago, halako estatutu batzuekin eta halako egoera politikoarekin, oso fin ibili beharko litzatekeelako ezker abertzalearen legezatzeko eskaera atzera botatzeko. Fin, batez ere hurrengo helegiteak Estrasburgo Auzitegira joko lukeelako eta honek Konstituzionalaren ebazpena atzera botatzea ez delako batere itxurosoa Espainiarrentzat. Estrasburgoko Auzitegiak ere, dena den, jurista aurrerazale



askoren eta euskal herritar gehienek ilusioa zapuztu zuen duela bi urte Espainiako Alderdien Legea ontzat eman zuenean.

Baina gakoaren iltzea, denok dakigun moduan, ez da juridikoa, politikoa baizik, bai lehen eta bai orain. ETA jardunean zelarik ere, Iniziativa Internazionalistak nahikoa izan zuen biolentzia modu orokor batean gaitzestea Europako hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko. Baina ETAREN historiako su-eten indartsuenean izatea eta ezker abertzaleak biolentziaren –ETArena barne– arbuatze historikoa egitea, ez da nahiko alderdi berria legezatzeko eta etengabeko baldintzak jartzeko beste alderdiak bezala aritu ahal izateko: berrogeialdia pasa behar duela, denbora luzean arbuatu behar duela ETA, harengatik bereizi behar dela edo argiki gaitzetsi... Iniziativa Internazionalistarekin nola jokatu zuen ikusita, hala ere, logikoena litzateke Konstituzionalak

**Estrategia berriaren muinean, ezkerreko indar metaketa soberanista dago eta, Nafarroan argi ikusi den bezala, horrek panorama politikoa aldatuko du**

oraingoa ezker abertzalearen alderdi berria legezatzeko.

**LEGE KONTUAK** aparte utzita, alderdi berriak aldaketa handiak ekarriko ditu ezker abertzalearen mundura oro har. Estrategia berriaren muinean, ezkerreko indar metaketa soberanista dago eta, Nafarroan argi ikusi den bezala, horrek panorama politikoa aldatuko du. Alderdi berriak

hor izango du erronka garrantzitsuenak, sektore horretako alderdi nagusia izanik, mugimendu zabal eta malgu eratzeko ardura berea delako. Apustu batzuk behar bezala ez ateratzea –2011ko Nabai– ezkerreko burujabezelearen indar metaketarako arazo izan daitezke, baina ez lukete gaindiezinak izan behar, epe labur eta ertainera begira espazio hori benetan osatu ari badute. NaBairekin ikusten nahen gisan, dena den, soberanismoaren bide hori zeharo malkartsua da.

Egindako barne egituraketaren iragarpenean ez dago ezustekorik, alderdi klasikoek dutena da. Baina ezker abertzalearen azken 30 urteetako antolaketari begira, horrek bakarrik aldaketa handiak ekarriko ditu.

Egitura moldeak garrantzitsuak dira, baina gero egunerokoan nola jarduten den da inportanteena. Alde horretatik, alderdi gehienek arriskua da beren oskolean gertzea, ordezkatzen ei dituzten herritarrak eta alderdien artean gero eta distantzia handiagoa sortuz. Hori saihesteko modu bakarra dago, areago izaera eraldatzailea duten alderdietan, gizarte erakunde eta eragileekin eskuz esku ibiltzea, elkarren begirunean eta elkar elikatzen. Indar metaketa eta aldaketa sozial handiak hala bakarrik lortzen dira.